

**Ari da betetzen bere hedapen planak, iragarria zuen erritmoan**

## **EROSKI-K 30 FRANKIZIA INAUGURATU DITU 2020KO LEHEN SEIHILEKOAN**

- **2,9 milioi euro inbertitu ditu, eta 156 lanpostu sorrarazi**
- **EROSKI-k 500 supermerkatu baino gehiago ditu gaur egun frankizia eran**
- **EROSKIren frankizien supermerkatu sarean, %30 inguru igo dira salmentak urteko lehen sei hiletan**

**Elorrio, 2020ko uztailaren 8a.-** [EROSKI](#)k 30 frankizia inauguratu ditu 2020ko lehen sei hiletan. Guztira, 2,9 milioi euro inbertitu ditu, eta 156 lanpostu sorrarazi. Hedapen horren bitartez eta denda propioen sarea eraldatzeko ekimenaren bitartez, bultzada indartsua hartu du EROSKIren belaunaldi berriko dendak ezaugarritzen dituen Zurekin eredu komertzialak.

Inaugurazio horietako 26 frankizia berrien irekierak dira, eta beste lauk entseinak aldatu dituzte. Autonomia erkidego hauetan egin ditu kooperatibak frankizien inaugurazioak: Katalunia (5), Madril (4), Euskal Autonomia Erkidegoa (4), Gaztela eta Leon, Valentziako Erkidegoa eta Balearrak (hiruna inaugurazioekin), eta Errioxa eta Andaluzia (bina inaugurazioekin) eta azkenik Galizia eta Nafarroa irekiera banarekin.

EROSKI-k aurreko urteetako irekieren erritmoari eusten dio. Hala, bost urte honetan, 300 inaugurazio baino gehiago egin ditu, eta gaur egun, frankizia erako 500 supermerkatu baino gehiago ditu. 2019an, kooperatibak 58 frankizia inauguratu zituen, eta aurten 60 inaugurazioetaraino iritsi asmo du. Hala, jarraitzen du frankizien sarea hedatzen, fokua lurralde hauetan ipinia duelarik datozen urteetarako: Andaluzia, Madril, Gaztela-Mantxa, Extremadura eta Levante.

EROSKIren frankizien supermerkatu sarean, %30 inguru igo dira salmentak urteko lehen sei hiletan. Horrek esan nahi du %16 handitu dela aurten oraingoz merkatuaren gainetik, Nielsen datuen neurketaz eta analisisiaz arduratzen den konpainiaren txostenak dakarrenez. *"Merkatutik bestelako frankizia eredu bat eskaintzen dugu; izan ere, geure izaera kooperatiboak geure bazkide langileekin ekintzaileen premietatik hurbil kokatzen gaitu. Eredu komertzial erakargarri bati esker lortu dugu haztea; izan ere, COVID-19ak eragin duen osasun krisian sektoreko batez bestekoak baino hobeto bete ditugu kontsumitzaileen beharrak"*, nabarmendu du EROSKIren Frankizia arloko zuzendariak, Enrique Martinezek.

### **Formatu komertzial askotarikoak**

EROSKIk supermerkatu formatu bat baino gehiago du, bere frankizietara eta negozioa ezarri nahi duen lekuko biztanleriara egokitzen dena. Besteren artean EROSKI City formatua dago, 350-500 metro koadro ingururekin, eta hirien eta 1.500 biztanletik gorako herrien erdialdean kokatua. Hor dago, halaber, azken berrikuntza ere, *Rapid* formatua, 2017an inauguratua. Komenentziako autozerbitzu bat da, ordutegi zabala duena, hamabost ordu egunero zabalik (08:00-23:00), urteko 365 egunetan eta 150 metro koadro dituen. Metro koadroko dagoen eskaintza komertzialik zabalena dauka, 3.600 erreferentzia baino gehiagorekin. Horrela, kontsumitzailearen 800 bat premia estaltzen ditu.

EROSKIk dagoeneko horrelako hogeit bat denda ditu, batik bat Madrilen, Levanten, Bartzelonan eta Balear Uharteetan. *"Merkatua harrera bikaina izaten ari da. Komenentzia erako denda bat da, kokalekuen tipologia askotarikoetara egokitzen dena, eta arrakasta handia izaten ari da merkaturako aukerak eta joerak aprobetxatzen ari delako"*, azaldu du EROSKIren Frankizia Saileko zuzendariak.

### **Tokiko produktuen aldeko apustua**

EROSKIren frankiziek arrakasta dute, zeren eta bezeroari arreta pertsonala ematen zaio, tokiko produktuen alde egiten du, elikagai freskoak nabarmentzen ditu eta elikadura osasungarria sustatu. Horra hor zergatik duten halako arrakasta EROSKIren frankiziek; kooperatibak bere frankizia sare osoan eskaintzen ditu ezaugarri horiek berak.

*"Badakigu gure kontsumitzaileek produktuen jatorria, osasun arloa eta jasangarritasuna baloratzen dituztela; horregatik, zinez inplikatzeko gara gizarte erantzukizunean eta gu gauden eskualdeen garapenean. Gainera, gauza batek bereizten gaitu besteetatik: langile kooperatiba bat gara, guztiok balio berak ditugu eta amaierako helburua bezeroaren atsegina lortzea da"*, esan du Enrique Martinezek.

---

#### **EROSKI**

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria    Tel: 946 211 214  
KRISTIAN PRIETO

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### **EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA. G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)